



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

2
0
1
0
/
1
1

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

MATEMATIKAKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A 2
- B 6
- ☒ C 7
- D 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A 2
- B 6
- ☒ C 7
- D 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Idatz ezazu zenbat erpin eta ertz dituen triangelu batek.

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

URTEBETETZEAK ESKOLAN

Gure ikastetxean ohitura den bezala, urtebetetzeak ospatzen ditugu. Ikasturtean zehar, urtebetetzeak ospatzeko, ikasleek, irakasleek eta familiek zerbait berezia ekartzen dute: fruta, bizkotxoak, tartak, pastak, bonboiak eta abar.

1. Begiratu irudian agertzen den tarta. Irakasleak tartan falta den zatia jan du. Gutxi gorabehera, zer tarta-zatia jan du?

- A. $\frac{1}{2}$
- B. $\frac{1}{4}$
- C. $\frac{1}{6}$
- D. $\frac{1}{8}$



2. Lukasek kilo eta erdi pisatzen duen tarta bat ekarri du. Gaur gelan 9 ikasle daude. Pisuan ageri den zatia ingeles irakaslearentzat moztu dute. Gelditzen den tarta-zatia 9 ikasleren artean banatuko dute zati berdinetan. Lukasek zenbat gramo jango ditu?

- A. 130 g
- B. 145 g
- C. 150 g
- D. 195 g



3. Bere urtebetetzean ikasle batek irudian agertzen den bizkotxoa ekarri zuen. Irakasleak zatitu eta banatu baino lehen galdetu zien: zer irudi geometriko ikusten dituzue bizkotxoan?

- A. Triangeluak, karratua eta dekadagonoa.
- B. Triangeluak, laukizuzena eta pentagonoa.
- C. Triangeluak, erronbo eta pentagonoa.
- D. Triangeluak pentagonoa eta dekadagonoa.



4. Gelako guztien artean, irudian agertzen den bonboi-kaxa hau oparitu diote Enrikeri. Kutzako bonboi guztiak kontuan hartzen baditugu, zer zatiki adierazten dute bonboi gorriek?



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k:
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Ondoko erantzun hauetako edozein: $\frac{1}{4}$, $\frac{2}{8}$ edo $\frac{4}{16}$ ($\frac{1}{4}$ ren baliokidea den edozein zatiki ontzat emanen da).

5. Zer pisu du irudiko gaztak? Gaztaren pisua zein den jakiteko hona hemen zenbait arrasto (pista):

- Lehen zifra jadanik ezagutzen dugu.
- Zifra guztiak desberdinak dira.
- 4 zifretako zenbakirik txikiena da.



1
0
2
3
G

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k:
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	0, 2 eta 3 zifrak zuzen jartzea.

DONE JAKUE BIDEA

Ikastetxeko guraso talde bat Done Jakue bidea egiten ari da. Orreagatik abiatu ondoren, Zubiri, Iruñea, Gares eta Lizarra pasa dituzte. Atzo Los Arcosen egon ziren eta gaur Vianan daude.

Iruñetik Gares bitarteko etapan, guraso batzuk Eunateko Andre Maria ermita bisitatzera joan ziren.

Taulan etapa bakoitzeko kilometroak ageri dira eta planoan, etapak.

ETAPA	km
Orreaga - Zubiri	22
Zubiri - Iruñea	20
Iruñea - Gares	23
Gares - Lizarra	21
Lizarra - Los Arcos	24
Los Arcos - Viana	18



6. Erromes bat Iruñetik atera da Gares aldera, eta 5 km badaramatza oinez. Zenbat kilometro egin beharko ditu Vianara iristeko? Idatzi egiten dituzun urratsak eta soluzioa.

- Iruñea - Viana: $23 + 21 + 24 + 18 = 86$ km
- Falta zaizkion kilometroak: $86 - 5 = 81$ km

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k:
0	0	Ez du Iruñetik Viana bitarteko tartearen kalkulua aurkeztu (86 km) eta ez du soluzio zuzena eman.
1	1	Puntu 1 emanen da alternatiba hauetako edozein jarritz gero: - Iruñetik Viana bitarteko tartearen kalkulua (86 km) aurkeztu

		du, baina ez du soluzio zuzena eman. - Erantzun zuzena eman du (5 km), baina ez du erakutsi Iruñetik Viana bitarteko tartearen kalkulua.
2	2	Erantzun zuzena eman du (81 km) eta Iruñetik Viana bitarteko tartearen kalkulua (86 km) aurkeztu du.

7. Korrikalari batek lehenengo egunean *Orreagatik Iruñera* bitarteko etapa egin du, bigarren egunean *Iruñetik Lizarrara* bitarteko etapa eta hirugarren egunean *Lizarratik Vianara* bitarteko etapa. Zein egunetan egin du kilometro gehiago?

- A. Lehenengo egunean.
- B. Bigarren egunean.
- C. Hirugarren egunean.
- D. Lehenengo eta hirugarren egunean.

8. Muruzabalera iritsitakoan talde batek erabaki du zuzenean Garesera joatea (1. bidea), eta besteak 2. bidea hartu du Eunateko ermita bisitatzeko eta ondoren Garesera jarraitzeko. Eunatera joan den taldea zenbat metro gehiago ibili da? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.




- 1. bidea: 4.260 m
- 2. bidea: $2.870 + 4.410 = 7.280$ m
- Bideen arteko aldea: $7.280 - 4.260 = 3.020$ m

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Ez du 2. bidearen luzera zuzen kalkulatu eta ez du soluzio zuzena eman.
1	1	Puntu 1 emanen da erantzun hauetako edozein jarritz gero: - 2. bidearen luzeraren kalkulu zuzena erakutsi du (7.280 m). Hala ere, ez du amaierako soluzio zuzena eman. - Soluzio zuzena eman du (3.020 m), baina ez du 2. bidearen luzaeraren kalkulurik erakutsi.
2	2	Erantzun zuzena eman du (3.020 m) eta egin dituen urratsak aurkeztu ditu (urrats horietan ikusten da nola kalkulatu duen 2. bidearen luzera).

9. Begiratu Eunateko ermita eta haren oinplanoaren irudia (1). Ermita inguratzen duen perimetroak, zer forma du?


- A. Hexagonoa
- B. Heptagonoa
- C. Oktagonoa
- D. Dekagonoa



(1) Oinplanoa

10. Begiratu Eunateko ermitaren ganga (sabaia). Iruditzen zaizu zati bakoitzak $\frac{1}{8}$ adierazten duela?

- A. Bai, 8 zati daudelako.
- B. Ez, ez direlako berdinak.
- C. Ezin da jakin.




D. Bai, sabaia osatzen dutelako.

11. Taldeak orduko 6 kilometro egiten ditu. Eta ordubete oinez egiten duen bakoitzean, ondoren, 10 minutuko atsedena hartzen du. Zenbat denbora beharko du 18 km-ko etapa bat egiteko?

- A. 3 h
- B. 3 h eta 10 minutu
- C. 3 h eta 20 minutu
- D. 3 h eta 30 minutu

12. Hamar minutuko atsedeen batean, lurrean eseri eta zerura begira jarri dira. Hegazkinek utzitako lorratzak edo arrastoak ikusi dituzte, irudian ageri den bezala. Lorratz horietatik, zein har daitezke paralelotzat?



- A. a eta b lorratzak
- B. a eta c lorratzak
- C. b eta c lorratzak
- D. Lorratz guztiak

13. Zer angelu osatzen dute bi lorratz edo arrasto horiek?



- A. Angelu zorrotza
- B. Angelu zuzena
- C. Angelu kamutsa
- D. 180°

14. Guraso taldea Vianako aterpetxera iritsi da eta bertako egonaldia ordaintzeko diru kantitate zehatza utzi dute mahai gainean. Zenbat euro kostatuko zaie Vianako aterpetxeko egonaldia?



.....€

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Ondoko erantzun hauetako edozein: - 140 - 140 €


BISITA BASERRIRA ETA BASORA

Eskoletako ikasleak baserri bat bisitatzera joan ohi dira. Baserri horretan badira baratze ekologikoa eta zenbait espezieetako animaliak, hala nola, astoak, ardiak, oiloak eta txerriak.

Baserri horretako langile batzuk arduratzen dira animaliak zaintzeaz, barazkiak ekoizteaz, gaztak egiteaz, pentsua erosteaz eta baserriko produktuak saltzeaz.


Ikastetxeak baserria eta basoa bisitatu ditu.

15. Ana eta bere gelako ikaskideak goizeko hamarrak hogeit gutxitan iritsi dira baserrira. Idatz ezazu, une horretan, baserriko horman dagoen erloju digitalak adierazten zuen ordua.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Ondoko erantzun hauetako edozein: - 9 : 40 - 09: 40 Erantzuna erlojutik kanpo egon daiteke idatzita.

16. Monitoreak erronka hau egin die. Zenbat pisatzen dute salan dauden pentsu-zaku guztiek? Laguntzeko, honela esan die: “ondoko zenbakizko-zuzenean dagoen laukiari dagokion balioa da”. Idatzi pisua laukian.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Ondoko erantzun hauetako edozein: - 3.200 - 3.200 kg Erantzuna laukitik kanpo egon daiteke idatzita.

17. Biltegitik 25 kg-ko 40 zaku pentsu hartu berri dituzte. Pentsu-zaku bakoitzak 15 euro balio du. Hartutako pentsuak zenbat balio du? Aukeratu kostua kalkulatzeko egingo zenukeen eragiketa.

- A. $40 \times 25 = 1000$
- B. $25 \times 15 = 375$
- C. $40 \times 25 \times 15 = 15000$
- D. $40 \times 15 = 600$



18. Monitoreak oilategia erakutsi die eta irudian agertzen den oilo helduaren antzeko bat harrapatu du. Ondoren galdera hau egin die: zuen ustez, oilo horrek zer pisu du?

- A. Kilogramo erdia
- B. Bi kilogramo eta erdi
- C. Bost kilogramo
- D. Sei kilogramo eta erdi




19. Baratzea ikustera joan dira eta monitoreak baratzean landatutako barazkiak erakutsi dizkie. Kutxa batean barazki hauek dituzte: tomateak (2 dozena), letxugak (dozena erdia) eta tipulak (tomateen bikoitza). Kutxan zenbat barazki-ale daude? Idatzi zenbat ale dauden barazki bakoitzeko eta osotara.



- Tomateak: $2 \times 12 = 24$
- Letxugak: 6
- Tipulak: $2 \times 24 = 48$
- Barazkiak, osotara $24 + 6 + 48 = 78$

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Ez du zuzen kalkulatu tomateak eta tipulak zenbat diren eta ez du soluzio zuzenik eman.
1	1	Puntu 1 emanen da erantzun hauetako edozein jarritz gero: - Zuzen kalkulatu du tomateak eta tipulak zenbat diren, baina ez du amaierako soluzio zuzena eman. - Soluzio zuzena eman du, baina ez du zuzen kalkulatu tomate eta tipulen kopurua (edo ez du erakutsi).
2	2	Zuzen kalkulatu du tomateak eta tipulak zenbat diren eta amaierako soluzio zuzena eman du. Ikasleak kalkuluak modu batean baino gehiagotan aurkez ditzake.

20. Baserriaren plano honetan etxea eta animalia espezieak dauden itxiturak ageri dira. Zein itxiturek dute azalera bera?



- A. A eta B itxiturek
- B. A eta C itxiturek
- C. B eta C itxiturek
- D. B eta D itxiturek


21. Landatu dira 30 pago, 40 pinu, 45 arte eta 55 haritz. Zuhaitzak Udalak ordaindu ditu; pinuak, berriz, mintegiak oparitu ditu. Haritz bakoitzak 3 € balio du, arte bakoitzak 5 € eta pago bakoitzak 4 €. Udalak, zenbat ordaindu du zuhaitz guztiengatik? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

- Pagoen salneurria: $30 \times 4 = 120$ €
- Pinuen salneurria: 0 €
- Arteen salneurria: $45 \times 5 = 225$ €
- Haritzen salneurria: $55 \times 3 = 165$ €
- Guztira: $120 + 0 + 225 + 165 = 510$ €

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Ez du zuzen kalkulatu pagoen, arteen eta haritzen salneurria (edo ez ditu egindako urratsak erakutsi) eta ez du amaierako soluzio zuzena eman.

1	1	Puntu 1 emanen da erantzun hauetako edozein jarritz gero: - Pagoen, arteen eta haritzen salneurria zuzen kalkulatu du, baina ez du amaierako soluzio zuzena eman. - Pagoen, arteen eta haritzen salneurria zuzen kalkulatu du, baina ez du erakutsi pagoen, arteen eta haritzen salneurria nola kalkulatu duen. - Amaierako soluzio zuzena eman du, pagoen, arteen eta haritzen salneurriaren kalkuluan akatsen bat edo beste egin badu ere.
2	2	Pagoen, arteen eta haritzen salneurria zuzen kalkulatu du eta amaierako soluzio zuzena eman du. Ikasleak kalkuluak modu batean baino gehiagotan aurkez ditzake.

22. Ikasleek basoan 30 pago, 40 pinu, 45 arte eta 55 haritz landatu dituzte. Ondorengo zein grafikotan adierazten da zehazki egin den zuhaitzen landaketa?



- A. A grafikoan
- B. B grafikoan
- C. C grafikoan
- D. D grafikoan